

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea • Pamplona - Epaila (Marzo) - 1967 • 13^{gn}. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

BAZTAN'GO BALLEA


Baztan'go Unibersidade ta Odolgarbiko Bailearen Aiundamendua Iruñe'ko Partido Judizial, edo Auzi Barrutian dago. Nafarro'ko ibarretatik gendeketaz eta edaduraz aundiena da eta Aiundamentuetan edaduraz bigarreña eta gendeketaz

irugarrena. Baztan'go Aiuntamendua amalau erri ditu: Almandotz, Ziga, Anitz, Berroeta, Oronotz, Arriatutz, Eluete, Gartzain, Irurite, Lekarotz, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta eta Elizondo. Ibarreko Uriburua Elizondo'ko erria da. Mugak Erroibar,

Esteribar, Anue, Ultzama, Bertiz-Arana, Etxalar, Donamari, Lanz eta mugaz beste aldeko Beko Nafarro'ko erriekin dauka. Baztan Zubi ibaiak Ballea aldetik aldera iragan eta zearkatzen du, eta Balle ontatik aterata Bidasoa izena artzen du. Baztan Ibarrek giro ezti eta bare du, euritsu xamar izaten bada ere, goxo eta atseginkorra geienetan.

Baztandarrek izatez eta mintzaeraz euskaldunak dira. Baztandar mintzaera alai da eta gogoz aitzen dena. Badu euskerazko izkera onek (euskalki, edo dialetoa erderaz esateko) nortasun bat, berezitasun bat beste euskal errialdekoek izaten ez dutenak. Bonaparte Errege-semeak, edo Prinzipeak, Baztandar euskera iparraldeko Goi Nafarro'ko euskalkiaren Saillean sartu zuen, mintzaera onek Lapurdi eta Beko Naparro'ko ekin bere artuemanak baditu ere.

Agur maitekor bat illabetekari ontatik Baztan'go Agintari eta gizonandre guziei igortzen diotegu eskabiden onekin batean: Aurrei euskeraz mintzaten erakusteko, eta euskeraz texeetan, karrketan, elizetan eta yostetan, ahal duten aldi guzietan itzegiteko. Baztan aundi eta famatua izan da, oraño aundia dela badakigu, eta aundiago eta famatuago izan ditekela eta izanen dela ziur gaude denok, baño euskerari beti, mingaetan erabiltzeko eta biotzetan maitatzeko, baztandarrek eustan badiote auniz eta auniz aundiago eta famatuago, aberatseago eta indartsuago izanen da gure Baztan'go Ibarra. Beti aintziña baztandarrek!



Elizondo - El Valle de Baztan, visto desde el Mirador



ESPAÑAKO GAUZAK

Españian, langille nasketak aldi ontan. Batean ixil eta bestean piztu. Bizkai aldeko burni-lentegien estutasuna aundia da. Badirudi agintariak konturatu direla. Elkar izketak izan dituzte, beintzat.

Algunas crisis laborales localizadas. Dificultades en la industria Sidero-metalúrgica de Vizcaya. El Gobierno toma las necesarias medidas para la normalización.

Ez da aski gauzak egitea; saldu behar dira. Españiak erostun berriak billatu beharko omen ditu bere zokoak ustuzeko. Sortaldeko erriekin artu-emanetan sartu bear lukela uste dutenak badira. Rumanarekin asia da. Bide ona izan laike.

Al parecer España necesita nuevos mercados para su industria en crecimiento continuo. Según algunas opiniones España debe abrir mercados con los países del Este de Europa. Ha sido un síntoma el Tratado con Rumania.

Bizitegiak. Bizitegi asko; 250.000 bizitegi egiteko asmotan dira agintariak urte ontan Españian. Etxe merke, langiletegi eta jende asko inguratu dituzten erritan jasotzen diren bizitegiak izango dira lenbiziko lagunduak.

Se publica un importantísimo Programa de Viviendas para 1967. Más de 250.000 viviendas serán construidas con apoyo del Gobierno. Se atenderán principalmente las viviendas más modestas y las zonas de mayor concentración de la población. v. g., los polos de desarrollo.

Mail goratzeko bigarren saioa (segundo Plan de Desarrollo) asteakoa da. Laister jakinen dira xehetasunak. Neke aundiek in bada ere, erri atzeratu len zenetik, aundiek in eskuz-esku joateko modura goratzen ari omen da Españia. Ala diote beintzat.

Próximamente se sabrá algo del segundo Plan de Desarrollo. Pese a todas las dificultades —dice un periodista francés— España está luchando para pasar del rango de país poco desarrollado al de un Estado capaz de afrontar la competencia con los países industrializados.

Baztan'go Alkate berria



Aurten Baztan'go Balleko Etxean aldakuntza aundiak izan ditugu. Alkate berria izendatu digute eta baita ere sei konzejal, denak gizon onak, errikoiak eta uste osoko jaunak. Baztan'go kiderak esku onetan daude.

Alkate Yaunaren nortasuna itz labur batzuetan behar ginuke agertu. Nor da gure Alkate Yauna?

Anjel Maria Hualde Goizueta bere izen deiturak, Irurite'ko Yauregizarreko nagusia da eta berarekin du ohorezko Marques de Casa Torre izen ospagarria bere Yauntasuna adierazten duelarik. Bere izen ohoregarri ori Nafarro'ko Erresumako zaharretakoa da, mendez mende datorkiona eta bera amargarrena delarik. Lege-gizon ospetsua, berak egin dituen lanak aipagarriak izan dira. Bere etxea YAUREGIZARREA du izena, Irurite'ko errian dago Nafarro'ko kondairan entzute aundikoa, bereartatik Yaun aundiak atera dira eta Nafarro'ko Erregearen ondoan uste osoko Jaunak.

Hualde jaunak bere Alkategoaren Agintea zaletasun aundiarekin artu du, berak inork bezein ongi dakizki nekazalgoaren gora-berak, gai oneri buruz badu zer ikusterik bere etxean ere azienda onak azten baititu. Mendi, oian, industri, kultura eta gañerakoetan ere antolabide aundiak emanak ditu Balleko Etxeko Erri-gizonei bakoxtari bere egin-beharra emanez. Alkategoaren Agintea bere gain artu zuelarik itz auek erran zituen:

«Laneko gogo aundiarekin etorria naiz eta gertu gaude denok auzi guziera arpegi emateko, bainan denen gañetik gure base-erria eta nekazalgoa lagunduko ditugu oiek baitira gure Baztan'go lurraldearen oiñarri sendo ta maitagarrienak».

Zorionak gure alkate berriari eta asmo on oiek guziek gerta ditezela, Herria'ren alde eta batez ere gure eskuara eta Euskal kulturaren onetan.



MUNDU ZABALEAN

Betiko berriak. Viet-Nam'eko istillu latza etzen egun bateko sortua. Aita Saindua bera pake-mutil egirik, pakeak iges egiten die. Ez dira nozbait atertuko? Bazterretan zerbait egiteko gogoia balitake.

No se logra la ansiada paz en el Viet-Nam, pese a la mediación del Santo Padre. Sin embargo existe cierto ambiente mundial que permite conservar la esperanza.

Txina Gorria ere irakiten dago. Mao (haur txikien Mamu eta Mauma bezala), kopeta txarrean, oso asarre daukagu. Europarekin ez du ezer nahi. Bere antzekoa den U.R.S.S. ere etsai bezala ikusten du eta ez du iresten ahal. Ba ote daki zuzen zer nahi duen!

Grandes alteraciones políticas en la China Roja. Los extremistas partidarios de Mao quieren separar completamente a la China de todo entendimiento con el mundo occidental, incluyendo a Rusia, a quien ya consideran como nación enemiga.

España Europako Elkargoan sartzekotan dabilta. Ez da ain errea. Nola nahi dela, ibiliz bidea egiten da; eta nozbait...

Se discute en el Mercado Común el ingreso de España. El problema es difícil pero indudablemente se encontrará la fórmula para nuestra asociación económica con los demás países occidentales.

Kennedy zenaren eriotza ere ez da gari garbia. Batek hil zuen? Baziren zombait hiltzale? Berrien obeki jakiteko beste ikertza bat egingo ote duten erraiten dute. Ez dute ur garbirik aterako.

Sensacionales informaciones respecto al asesinato del Presidente Kennedy. Es posible que se empiece otra nueva investigación para averiguar los verdaderos móviles y para descubrir a otros posibles conjurados.

Lengua Vernácula

1967'ko otsailak 3'ko «A B C» Madril'go Egunerokari famatuan agertzen idazlan au, erderaz eta itzez itz, osoan, argitaratzen dugu emen, irakurle maite guziek gure jaicerrizko izkuntzaren aldeko iritzi onak leitu ditzaten.

Quien esto escribe es un castellano viejo, con cien abuelos castellanos, nacidos casi todos ellos en las montañas y valles por donde Castilla se asoma al mar, al gran mar en donde el romance chiquito de los poemas y cantares encontró el camino para hacerse lengua universal.

Quien esto escribe siente el orgullo de su lengua castellana, la noble e ilustre lengua que resuena con un deje irónico y punzante en el Zócalo de Méjico, con un son dulce y perezoso en las calles de La Habana, con un tono musical en los «jirones» limeños, con una clara cadencia en los muelles de Valparaíso, con un eco campero en las estancias de la Pampa argentina, con un regusto oriental en ciertas casas de Manila, con un grave y arcaico acento en los bazares de Estambul. La lengua que todavía penetra en Tejas y en California, en el West Side de Nueva York y en las medinas de Marruecos; la lengua que aún denomina islas, promontorios y bahías en la costa canadiense de la Colombia británica, por donde anduvieron los «caballeros» españoles del siglo XVIII; o glaciares en Alaska; o remotas ensenadas en Terranova; o que designaba hasta hace poco un cañaveral perdido en la Florida, un cañaveral que estuvo en la nueva frontera hispánica del siglo XVI y que ahora está en la nueva frontera norteamericana de las navegaciones espaciales. La hermosa y, perdón, imperial lengua de España. El idioma en que se han escrito algunas de las páginas más bellas y profundas de la literatura universal.

No tiene, pues, quien esto escribe razones para no entender la grandeza de una lengua que, si no es la única lengua española, sí es —por ser de la mayoría y por haber mostrado la faz de España por el mundo a lo largo de los siglos— primera lengua de España.

Pero... Todo mi orgullo castellano y mi fervor universalista no podrán hacerme aliviar el momento de la unidad de las lenguas aún no ha llegado, que se hablan muchas en el mundo y que éste es vario y múltiple todavía, como varia y múltiple es, dentro de su unidad, mi propia patria grande, España, en la que viven y alientan fuertemente otros idiomas tan venerables como

el mío y que yo debiera saber, pero no sé.

Alguien se preguntará a qué viene todo esto cuando esto es obvio y nadie lo niega. Me temo que venga como anillo al dedo. Vamos a llamar a las cosas por su nombre. En España, aparte de formas dialectales o de importantes ramas idiomáticas desprendidas del común tronco latino —ramas con un uso cotidiano y hasta una literatura— hay dos lenguas con una fuerte entidad y una gran antigüedad: el catalán y el vascuence. Creo que no es necesario a estas alturas recordar que el catalán, el «bell catalanesh», ha sido una de las más importantes lenguas del Mediterráneo, que ha poseído una literatura gloriosa y que, como decía el gran sabio de mi tierra montañesa, Menéndez Pelayo, fue la lengua arrogante que un día oyó «la gentil sirena del Pausilipo». Y que hoy es la lengua de muchos españoles que están ahí, a nuestro lado, vivos, no hablando sólo de glorias pasadas, sino de la vida y los afanes de cada día. Ni será tampoco necesario recordar que el vascuence, el misterioso e hispánico vascuence, es la más venerable reliquia lingüística de la Península, quizá el idioma de los primitivos pobladores de nuestra tierra, «la antigua lengua de las Españas», como le llamaba el licenciado Ponce, pero, sobre todo, la viva lengua materna de varios cientos de miles de españoles de hoy —¡de hoy!—, que en ella expresan su intimidad mejor que en castellano.

Pues bien, los españoles, en nuestro conjunto, aún no hemos asimilado saludablemente esta realidad diferencial existente en el seno de nuestra nacionalidad. Hoy se habla y escribe mucho sobre este tema y, por ello, me permito terciar en el diálogo, porque advierto que no todo lo que se dice está dictado por la serenidad.

Dejemos a un lado toda académica discusión sobre la raza, la cultura y la lengua. No pretendamos aclarar si ésta es el alma de un pueblo, o si es, como decía Unamuno, la patria. En todo caso, la lengua no es un mero sistema de transmisión de pensamiento, un simple medio de comunicación elemental. La lengua es expresión de nuestro espíritu, es la «vestidura invisible» que lo envuelve, es el espíritu mismo hecho palabra.

Y, a la vista de esta sencilla verdad, preguntémosnos los españoles si estamos dispuestos o no a convivir con el hecho insoslayable de que hay en nuestra tierra más lenguas que el castellano. Dispuestos a reconocer la realidad sin encarnarnos ante ella, sin considerarnos ofendidos porque delante de nosotros se hablan esas lenguas; dispuestos, en fin, a darle a cada una, en la justa medida de su respectiva importancia, todas las facilidades y los medios que hoy día se ponen al servicio de la enseñanza y difusión de las lenguas vivas: escuelas, libros, periódicos, radio, televisión, cine, etc.

No voy a referirme a la época magnífica de España en que los infantes de Castilla aprendían el catalán. Simplemente, en nuestros días se han hecho visibles y relevantes gestos de reverencia a Cataluña y al País Vasco, desde las alturas del Estado o la autoridad del Gobierno y, sin embargo, el buen ejemplo no parece haber calado con suficiente profundidad en la actual sociedad española. Aun en ciertas capas de ésta, uno encuentra resistencia a aceptar el hecho diferencial, respuestas ásperas y, a veces, rústicas al planteamiento del problema, timidez ante la necesidad de que desde este centro de España en donde escribo se alce valerosamente la bandera de la rica variedad de nuestra patria, en la que caben varios bilingüismos sin que sufra menoscabo la unidad nacional ni menos aún la grandeza de la común lengua mayor castellana.

De esta actitud, antigua de siglos —al menos desde el XVII—, se han derivado siempre rencores y tensiones graves que han desembocado en incomprensiones recíprocas en las que unos y otros podemos perder la razón. (A uno también le duele, como español que es, los desvíos de lado «no castellano», los desvíos y hasta los odios desatados contra el resto de España en este largo diálogo de sordos). Comprendo que todo un problema sumamente delicado, lleno de implicaciones políticas y de una gran dificultad de solución. Pero el problema está ahí y nada vale ignorarlo porque nos está desafiando todos los días y preguntándonos si somos o no capaces de resolverlo.

La Iglesia católica nos acaba de dar ejemplo de comprensión al renovar la liturgia, basándola sobre el diálogo en lengua vernácula. Más de un resistente a la novedad ha reaccionado temiendo por la unidad y lamentando el golpe dado a la universalidad de la Iglesia con la pérdida del latín como lengua común.

Con todo respeto a este sincero temor, quisiera preguntar, en primer lugar, si se puede llamar idioma común a una lengua que todos consideramos «muerta» hace siglos, y, en segundo lugar, si no es mucho más importante la universalidad en el profundo entendimiento de una liturgia perfectamente comprensible que la supuesta universalidad en el sonsonete de una lengua que nadie entendía.

La Iglesia se ha dado cuenta de que la vitalidad de las lenguas vernáculas aseguraba la claridad y sinceridad de la comunión de los cristianos. ¿Nos daremos nosotros cuenta de que el uso, lleno de simpatía colectiva, cuidado y estudio de las lenguas vernáculas de España no hará más que aclarar el diálogo de los españoles y hacerles sentir más limpiamente, más serena y amorosamente, la comunión en la unidad nacional?

Digo esto porque no quiero ver que al amor a mi patria se le reste el amor de ninguna de sus parcelas. Y hago más, aplicándolas a cualquier región española que pudiera sentirse distante del resto, las palabras calientes y conmovedoras que un aparentemente frío profesor de Metafísica, Julián Marías, dedicaba a Cataluña hace poco:

«Y, además, está dispuesto (el español) a todo menos a una cosa: a renunciar a ella, a despedirse con indiferencia de lo que siente como su propia carne, fundida en un milenio de altas empresas y crueles fracasos, de amistad y desvío, de ternura e injusticia, de admiración y rivalidad, de amor y dolor».

Alfonso DE LA SERNA

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA



ELIZAREN

ITZA

ELIZ BATZAR NAGUSIA ETA KRISTAU BATASUNA

Senide berexuak, naiz zenbait salbabide iduki, uste onean Xristori jarraitzen dietenak batez-ere, utsune eta akatx franko ere badituzte; ez dira bat, zein bere alde dabiltz sarritan, burua moztu dute eta bururik gabe, agintaririk gabe, ezin eutsi sinisgaetan, sakramentuetan Kristok nai izan duan batasunari. Kristoren Eliz Katolikoan soil-soilik arkitu ditezke bete-betean, oparu, salga-bide guzik, ain zuzen, auek denak utzi zizkion Kristok Apostolu Batzarrari Pedro Buruzagi, Kristoren korputz bakarra lurrean antolatzeko eta korputz oni erantsi eta txertatu bear, nai eta naiez kristau izena deramatenak batasuna lortzeko, eta batasun onekin Kristoren salbabideak oro (D E 3).

Gaurko egunean, munduan zear, Goi Arnasak eraginda, alegin asko egiten dira otoitz itzketa eta ekinaz, Kristok nai izan duan batasun bete-bete ori irixteko. Eliz Batzar Nagusiak bere seme guzieren eskatzen die lan saio oiri arretaz eldu eta laguntzeko.

Nunnaitik sortzen direla alegin oiek, kristauak elkar aditzeko eta elkarrengana biltzeko giroa xamurtzen baldin badute, arrera ona egin bear dakiote.

Lenik, gai ontan, zenbait eleketa, iritzi eta ekin-aldi oker edo gezurtiak gure senide berexueneri ez dagozkienak zearo baztatu bear ditugu.

Bigarreno: Bi aldetako jakintsuen elkar-itziketak eratu bear dira, bakoitzak bere elizaren iritziak sakonki aztertuz eta garbi azalduz, orrela alde batekoak eta bestekoak elkarren berri zuzenago ikasten dute eta an eta emen azaltzen diren gauz onak estimatzen dira.

Iugarreno: Edozein kristauak denen onerako artu bear izaten dituzten egin bearretan, gosete bat dala, izurrite bat, erri atzeratuen egonera kokkorra, kristau eliz guzik elkarrekin gerogo eta geiago biltzen al dira, bai eta ere, al aiñean, otoitz batean.

Azkenik, denek aztertzen al dute nola jokatu diran Kristok Elizari buruz erakutsi dizkigun asmotan eta oker billatzen direnetan eraberritu, zuzendu aitzirik gabe, aspaldiko leloak alde batera utzita.



IKASTETXE NAPARROAKO NAGUSIATIK

Noizik eta bein euskeraren alde egiten diran lanak jakin araztea ez da gaizki. Ikastetxe Nagusi ontan egiten ditugun lanak ikusi arazi nai dizkizuet, ba, itz gutxitan.

Orain urtebete baino geiago, Diputazioaren laguntzarekin Euskal-Naparroako erri txikiak bixitatzen asi nintzan. Aldizkari onen irakurle askok ezagutzen nauzute noski, ederki lagundu bainazute nere lanean. Esker milla.

Magnetofono bat sorbaldatik txintxilik erriz-erri ikusi nauzute negu ta udaran. Saraitzun, Erroibarren, Baztan eta Larraunen, eta beste Naparroako erri tar ibar askotan izan naiz bertako euskera billa. Irurogei ordu izketa gutxi gora bera jasoko ditugu zinta magnetofoniketan.

Jasotako izketa auekin lan sakonak egin bear ditugu orain Naparroako Ikastetxe Nagusian. Ikasleen artean baditugu euskera artu nai dutenak bere lanen gaez, *Filosofía y Letras* en ikasleak batez ere. Beste izkuntza askorekin egin oi dan bezela, *Atlas Lingüístico* bat egin nai degu gaurko teknika oberenakin, Euskalerriko txoko guztietako izkuntzaren xeetasunak ezagutu ditzagun. *Atlas Lingüístico* onek ikusi araziko digu mapa bakoitzean itz bat nola esaten dan ortarako berezi diran errietan. Gure asmoa da *Atlas Lingüístico* au oiñarri ziur izan dedin euskal ikaskuntzarentzat.

ANA MARIA ETXAIDE

ESKUALERRIKO LEIOA

Bertsolarien azken txapelketa

Asko dira Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketaz berriak jakin nahi dituztenak. Aurten beharra dela denek badakite, eta ez jakin noiz! Auxe da koropiloa.

Ezer baño len, pazientzi pixka bat artu dezagun. Eskualerri guziko bertsolarien txapelketa aztuta ez dago, ez eta ere lo; bere bidez aurrera dioa. Aurten egingo da.

Gertatzen dena beste bat da: eskualde bakoitzeko txapelketak egin behar dira aurretik. Naparroako egin da: Migel Arozamena, Lesakakoa, gelditu zen Iruñen txapeldun; eta Andrés Narvarte, Goizuetakoa, bigarren. Bizkaiko buru Juan Lopategi dugu aurten; eta Juan Mugartegi, bigarren. Durangon zuten azken saioa.

Bidasoaz beste aldetik, Mattin eta Xalbador izango direlakoan gaude, ez bada uste gabeko aztapurik sortzen.

Eta Gipuzkoan zer? Pixkaren bat atzeratu direla, besterik ez. Kontuan iduki behar da, bestetan baño bertsolari geiago badela Gipuzkoan. Izanaki dira Ordizia (Billafranka), Bergara eta Billabona'ko saioak. Azken aldi ontan badijoaz beste zombait: Otsaillaren 26'an Errenterikoa; Oriyon eta Azeitian, ilabete onen 5 eta 12'an.

Sei erri auetan atera diren oberenekin Gipuzkoako azkenaren aurreko saio bat beharrezko da; geiegi bai dira aldi baterako. Gero Gipuzkoako azkena. Pazko ondoan egiteko utzi dituzte. Orduan jakinen da nor diren Gipuzkoako oberenak.

Azkenekotz, Probitzi bakoitzeko txapeldunen artean aukeratuko da Eskualerri guziko txapelduna. Noiz? Ezin da esan. Aurretik dauden saioak egin eta.

Ortan dago festa onen joan-etorria. Eskualerriko festa nagusia.

Paris'tik Euskeraz

Otsaillako 26'an Paris'ko irratitik (radiotik) euskeraz egin dute sayo txiki bat.

Egunero arratseko 11'tik 12'ak arte erdaraz itz egiten dute. Lenbizi berriak (notiziak) emanaz, gero bi edo iru lan txiki batzuek kulturari buruz, edo gaurko zerbait yakingarri agertuz.

Igandetan berriz lan txiki oyetik bat asi dire egiten katalanaz, bertze igandean gallegoz, eta orain berriz laugarren igandean euskeraz.

Otsaillako laugarren igandean lenbiziko aldi euskeraz egin zan. Sayo au euskal kulturari buruz izanen da. Napartar batek antolatzen du sayo au, eta oso doñu ederrakin mintzatu zan.

LESAKAR BATEK

ARALAR'KO AINGERUA BERRIRO ERRIZ ERRI



Beste urte aunitzetan bezela eta aintziñeko oiturei jarraituz Bazkoko Astelenaren ondoko astelenean (aurten Jorraitaren 3'ean) gure Iruña zar eta berriari Aralar'ko Zaindari den Mikel Aigeru Sainduaren Irudia elduko da. Jorraitaren 3'ean bada Aralar'ko Zaindariaren Nafarro'ko erri askotako ibillaldia asiko da.

Ongi etorria izan dedilla Aingeru ibilkaria gure errietan eta biotzetan.

Aingeruari agur egiteko Kantak argitaratu ditugu emen inoiz galdu ezditezen.

(Soñu: «Ave, Ave, Ave Maria» bezelakoa).

MIKEL, MIKEL,
MIKEL GUREA,
ZAIZU, GORDE,
EUSKAL ERRIA.

1

Goazen euskaldunak
Aralar'era
Mikel Aingeru
agur egitera

2

Aralar mendira
igo gaitzen
Mikel ikustez
ezgera aspertzen

3

Aitortu dezagun
bere aurrean
naiko dugula ill
geren fedean.

4

Euskal Erri ederran
giñaden jai
gure sinismena
bizirik dago.

5

Errekaredoren
fede garbia
sekulan gezurrez
nasi ezdedilla.

6

Aurrekoetatik
dugu ikasi
oso ziñez eusten
Lege Onari.

7

Egiak zigozkan
Euskal Erriari
probetxu, mesede
asko ekarri.

8

Eztugu nai autsi
Kriston Legea
ez dotriña gaistoz
gaur nastutzea.

9

Osorik osoan
guztia gordez
eztezagun saldu
gezurren ordez.

10

Alperrik Satanak
leiatuko da:
ezdigu galduko
Sinismen Ona.

11

Euskaldunak pobre
izan gindezke;
euskaldunik ezta
Federik gabe.

12

Aralar'tik Mikel
begira dago

Luzbelek parterik
eztu izango.

AZKEN AGURRA (joaterakoan)

(Soñu: «Adios Reina del Cielo»
bezelakoa)

izan beti tronutzat
Aralar mendia.

Aditu euskaldunen
itz miñez beteak.
Bota Euskal Erri'tik
deabruen jendeak.

Bakarrikan nai dugu
Gure Jaungoikoa,
Fede bat, Bataio bat
Biotz bat osoa.

Atera zazu, Mikel,
ezpata zorrotza
zure etsaien sugua
utzitzeko ilotza

Bazoaz Aralar'a
Aingeru Santua
Zerua iristeko
eman iguzu eskua.
Agur, Mikel Aingeru,
Agintari aundia,



DONAMARIA'TIK

Esker onak emanaz

Donamari'ko umetxo euskaldunak, Nafarroa'ko Diputazioaren «Príncipe de Viana» euskeraren alde lan egiten duten Jaun Agurgarri oiekin zorretan arkitzen gera. Bai zorretan! Ta... zergaitik? Jaun oiek beren izate ta egitekin mesede aundiak egin dizkigutelakoz: Añen buru argi, biotz on ta esku zabalak gurekin izan diralako, eskerrak biotzez!

Umetxo auxe eman nai diogute: *Esker onak-biotz barrengo otoitz beroak-maitasun ta zorionak*. Yaun txit agurgarriak! Orrelaxe oraindu nai ditugu zuekin dauzkagun zor aundiak. Eskerrik asko, ba!

GOAZEN AURRERA

Aurrera bildurrik gabe, umetxo maiteak, Kristori begira. Berak garamazki zuzen bidetik. Berak garamazki Zerura. Gure bizitzako bide ontan, elkarren laguntzalle izan gaitzen ta ez galgarri. Gure amaren altzo beroan ikasitako euskera ta euskal oitura on garbiak orain ta beti gorde ditzagun. Bestena... biotz gabekoak izango giñake.

Jaungoikoa buruan; otoitza biotzean, ta euskera ezpañetan duen erria, ezta ilko. Oñak lotuta euki arren ere ibilliko da.

Nor geran galde badigute
guk oiuka erantzun:

Kristau zintzo-zintzo gera ta
biotz-biotzez EUSKALDUN.

GURE ERRIARI BEGIRA
(BERTSO BERRIAK)

1

Ezin ekarri Zugaitza onak
fruitu samin ta gaziak,
gure Erria ona dalakoz
dakarz gozo, on t'eztiak;
Euskal Erriak berekin dakarz
mingañetan itz garb'ak,
otoitz, euskera, txistu, pillota,
t'oitura garbi guziak.

Lenengo gauza ikusten dana
gure Euskaldun errian,
begi-biotzak dauzkala beti
sarturik Zeru goian;
Gogoa dauka su ta garretan
Ja'nkoain maitasunean,
bere Fedea beti aitortzen
gende guzien aurrean.

Zeruko Amaz nola atzendu
euskaldun biotz gartsua?
gauero dio pozez ematen
bere lore pil multxua;
Lore pil orrek edertzen dio
Amari bere Burua,
Lore pil orrek izen auxe du:
"Errosario Santua".

Euskal Erria gure Ama da,
bere semeak gera gu,
seme zintzoak geran bezela
Ama bear da maitatu:
Gure Euskera, Ele goxua!
orain ta beti gordetu
Gora Jainkoa, Gora Euskera!
otoitz, pillota ta txistu.

5

Ezti sartzen da belarrietan
urretzindorren kantua,
bañan obeto euskaldumentzat
Gure Erriko Txistua;
Gure soñua garbiena da
gora dezagun gaixua.
Bota dezagun gure erritik
kanpotar zikin loitsua.

Euskal semeak p'illota onetan
indartsu gera saiatu,
orain artean mundu guzian
"txapeldun" gera agertu;
Ezker ta esku'n, su ta garretan,
pillota zagun berotu;
aurrera ere gure errian
kantatzeko "kukurruku".

Zabalzabaldu orain, anai,
zure begiak t'ikus!
Euskal Erria lapur gaixtoak
nolanai duten ebatsi;
Zauri, oñaze, odol, arantzaz,
gaxorik nai dute utzi:
len ain ederra ikusi dugu!
zeñek jarri nai ikusisi?

Goi Mikel Deuna, gau eta egun
gure zai dago mendian,
Euskal Erria arturik dauka
egaltxo bien aspian.
Etsai gaixtoak sartzera ez utzi
gure Euskal Erri maitean
Mikel Aingeru, otoi gure alde,
Jaungoikoaren aurrean!!

¡JUN DA NEGUA!

Adan ta Eba'ren bertsoak

Azken ordutan dago Negua.
Billdu ditu aserriak.
Elur ta beste petrakeriya,
almen aundiko agiriak,
gordeko al zitun «urrenguarde»
¡Agur, agur, goraintziyak!

Iges egiñ du noizbait gaixtuak
Uda-berrik bultzatuta.
Lorategitan agertu dira
landare asko apainduta.
Laño-goibela gallen zirana,
dijuz denak uxatuta.

Lenengo lorek ideki dira,
Jose Deunaren loriak.
Jaunen eskutik z'atera al leizke
ditugun baño obiak?
Lore apala oriz jantziya,
egiz zerate maitiak.

Negu maitzurra etsi eziñik
aldin-aldin mintzatzen da.
Kazkarabarra zabaltzen daki;
¡ibilli oi du zalaparta!
¡ixilldu ordua etorri zai;
laxter ikes mentetuta.

Atera zaitte, Uda-Berriya,
prest-prest zauden tokitikan.
Alde egiñ du Negu zitalak
zure begi aurretikan.
Zabaldu jene! zure apañak
nun nai, ongi, gogotikan.

Egitan ¡jun da nere anaya
ta ez ta berriz etorriko?
Askotan daki berriz itzultzen.
¡Ez al zai damutuko?
Bildurra daukat, bildur-larriya
naizen aña azaltzeko.

Arratsa ariñdu ta moxtutzen da;
laxter dator goiz argiya.
Sortalden irriz jeikitzen zaigu
aundiz jantziya iguzkiya.
¡Bai dala egitan zoragarriya
bere suzko arpegiya.

¡O gure eguzki disditzalia,
zabaltzaiguzu ontasuna.
Argiya zera, zalantzik gabe
gauz denen arten onena.
Argi orrekiñ, gure Jaun maite,
eman zaiguzu onspena.
JOAQUIN ALDAVE

1

Denbora, leku, zeru ta lurrak
zar da illargi, eguzkiak
krisatba, aizia, animalayak
ur gezak eta gaziya
Aita Eternuak sei egunian
egin zituan guziyak
merezí du ta eman zaizkagun
eskerrak eta graziiyak.

Aita Eternuak Adan ta Eba
egin zituan aurrena
lendabiziko gizasemia
emakumia urrena
baratza frutaz bete batian
sartu zituan barrena
bañan etzuten ondo kunplitu
eman ziyoten ordena.

3

Demoniyuak ziyon Ebari:
"frutua artatik jan zazu,
Aita Eternuak dakien ainbat
orduban jakingo dezu,
Berak ori nai eztuelako

zuri debekatu dizu
orra esan nik egiya eta
orain nai zuna egizu".

Allegatu zan Adan, ta Eba
frutua ortatik jattia,
etzan posible mundu ontatik
ñor zerura juatia
oyek kunplitu etzutelako
Jaunaren borondatia
itxi zigtuten guziyazako
zabalik zegon atia.

Adan ta Ebaren Kain da Abel
igualak izan ezta
inbriyaren gorroto gaiztoz
il zuen batek bestia,
arrazoyaren biderik gabe
anaya zarrak gaztia
alakoari gostako zayo
zerua irabaztia.

Lau milla urtian egondu ziran
zeruko atiak itsi-ta,

zenbait anima triste bazegon
Linbo belzera jetsi ta
betiko ala bearko zala
beren artian etsita
zori onian egin ziela
Salbadoriak bisita.

Al dan ma'zena erreza zagun
"Nere Jesukristo jauna"
jakiñik dala Jaungoiko eta
Gizon egiazko ona,
Gurutze pisu baten azpiyan
aifi gogoz iltzera juana
guri atiak zabaldu eta
orain zeruan dagona.

Kristau guziyak sinistu zagun
Eskriturak dakarrena
zeru ta hurren agintariya
Jesukristo da aurrena;
eskubidiak Arek eman da
Aita Santua urrena
"Vaticano'ko Artzai umilla
Paulo Yauna Seigarrrena.

MENDIZ

ETXETIK URRUNEKOEN GURUTZEBIDE BAT

1. Eriotzara biali zaitu Pilatos, Jesus ona! Pilatos batzuk badauzkagu an-emenka guk ere: eunendako berreun kendu nai, edo eunendako bizpauru eman nai liguketenak; gure bizker bizitzea edo gure anime ere ondatzea billatzen dutenak. Pilatosen antzekoak garaitzen, lagundu gu Jesus!

2. Gurutzea soñean zoaz, Jesus! Guk ere, gure gurutzea emen! BAKARTASUNAREN gurutzea! BAKARTASUNA zer den, zein ongi dakizun Zuk! BAKARTASUNAREN zama zein aundia den, zein ongi dakigun guk! Gure Lagun izan zaitez gure gurutzetan Jesus!

3. Gurutzearekin lurrera Zu! Gu ere erori ginen. Oroitzen zara, bai! Neke ta atsekabe artan...; badakizu... Zuzana biotza goratu bearrean, erori! Geren buruari emanik egon guk! Zuk utzi ginduzula uste guk! Ez gaituzu utzi, ez: ta ez gaituzu utziko gure Jesus on orrek!

4. Galbarioko bidean Zu lagun-teraz Ama! Oroitzen gara Zure Amaz. Guretake eman diguzula badakigu. Oroitzen gara ere gure lurreko amaz: emendik gure biotza arengana: ari esker dakigu eta Zu nor zaren; Zure Ama nor den! Zaindu zazu, irau dezala gure alde oituzean! Noiz ikusiko ama guk, Jesus?

5. Simon Zirenetarrak, bortxaka bada ere, lagundu zizunean, poztu zitzaizun Biotza. Gure etxetik karta bat; gure lagun batengandik berri bat; norbaitengandik oroitzapen bat gure eskutaratzen zaigunean, zer poza gure biotzak! Gutaz oroitzen diren guzien biotzak gorde itzazu biguin biguin ta maitekor-maitekor, Jesus ona!

6. Zutaz urrikaldu zen Beronika. Zutaz diogu? Gutaz ere bai! Zure Biotzean, Zuk nai bezala, maite gaituen edo maiteko gaituen emakumea zein den erakutsi iguzu, Jesus! Non-nai Zure zerbitzari zintzo agertzeaz lotsatuko ez den emakume bat ba-koitzarentzat nai dugu, danok zeruratzeko, Jesus!

7. Bigarren aldiz lurrea Zu. Gu ere bai. Etxetik urrun, eri edo gaxo; ta ongituko ginduen amaren biotz ta esku ezta gugandik urruti.

Gure barrena nola erortzen zen! Eskerrik Zutez oroitzen ginela! Eskerrik Zubaitan ustea galdu ez ginuela! Zutaz atzenduz, nola goratu eroririk dagona, Jesus?

8. Nitaz diozunaz oroitzen gara, bai, gaur! «Jerusalengo alabak: ez Nitaz negarrik: negar egin zazute bekatuagatik!». Egia! Eta gu bekatuaz negar egitera guttitan oroitzen! Gaur, Zure Neke ta Eriotza gogora dakargun untan, biotz-biotzez erraten datzugu: «Barkatu, Iana, barkatu».

9. Irugarren aldiz lurrera Zu! Baño zutitu ziñen; eta Zure bidean azkeneraño irau. Gure bide zail untan azkeneraño iarrizteko lagunza ez uka guri! gure guratso ta aurridetaraño, Jesus! Gure erri-taraño eraman gu, Jesus! Andik Zure Zerura ioateko, Jesus!

10. Iauntzirik gabe Jesus, lotsaz edo alkez estalirik! Lotsaz edo alkez: nolako argia ematen dakuten bi itz ok! Onak izatera lotsatzen ta alketzen bagara, Zuretzat ez gara on! Biurriak izateari lotsa edo alke badiogu, Zureak gu! Gu beti Zureak izaten lagundu, Jesus!

11. Iosirik zaude gurutzetan. Po-

zik daude Zure etsaiak. Iosirik ba-geudeke Zure maitasunean, Zureak gindezke! Bakarrik gabiltzanean, Zure! erriratzean, Zure! gureak, barka-barkara, doazinean, Zure! gure azken ordua etorzen zaigunean ere, Zureak izateko!

12. Gure ordua etorzen zaigunean, Zure, bai, Jesus! Zu bezein ezti ta p-ketsu. Gure egiteetan zerk balio duen egiz ordu artarako ta zerk ez, adierazi iguzu garbiki. Zinzinetan eskatzen datzugu, Jesus!

13. Zure Gorputz illa Amaren besoetan. Zein maiteki artu zuen Zure Amak! Zuk maite duzun bezala maite nai dugu beti Zure Ama. Otoitz gutti egiten badiogu ere, biotzetik doakio. Otoitz, o Ama, bekatari oken alde, orain eta gure eriotzeko arduan!

14. Ez dezagula guk beñere galdu Zure maitasunaren bake saindua. Urrundu gugandik asmo gaitoak: kendu gure biotzetatik goibel illunak: arindu gure lan eta nekeak: kementsuki eraman dezagula eguneroko gure gurutzea: Zure atsedean eta pake goxoa arki gaitezen azkenean. Amen.



GURE MENDI - MUTILLAK LANETAN

IKASI, MIKASI...

¡Beti elizen deenak, ez dee obeenak...!


ERASUN

BESTE MUTIL BAT LANEAN ARI DELA ILLA

Otsaillaren 14'ko atsaldako seiak aldera. Arbol batek azpian arrapatuta, garbittu da Mutioko-bordako Pakito. Mutill zintzoa eta langillea. Sasoirik oherenean zegoen bere ogeitabederatzi urteekin. Zeruan Bego.

Bere illetan jendezko edertasun aundia izan zen eta gizonetako asko urbildu ziran Jaun artzera. Erriko Artzaiak erakuskizun egoki bat eman zuen itzaldian. Itz gutxitan auxe esan zuen: «Gure bizitzan alegiñak egiteaz bizi bear dugula, beñere ill bear ez giñuken bezala. Eta beste aldetik, berriz, bereala ill bear giñuken bezala, beti prest. Pakito bere bizitzan saiatu zela alegiñak egiten eta zintzo jokatzeko, orregatik pentsatzen dugu Jaungoikoz gozatzen egonen dela».

Egitan Erasun'go mutillak galera aundia daramatela. Ogeitabost illabete barrenean, Pakito zena seigarrena izan da. Oraindik ezdira bi urte beste ania era berean ill zitziola. Zeruko Jaunak eman dezaiela betiko atsedena.



EUSKAL KIROLAK

Yoan den Otsaillaren 19'an Azpeiti'ko plazan aizkora apostua izan dugu. Azpeiti'ko plaza orrek 19 urte bazituen orrenbertze yende ikusi etzuela, orduan ere Arria zaharra eta Kortak aizkora apostu famatu ura yokatu zuten egunean, izan ere orrelako aizkora apostu aundiak yendea mugiarazten baitute batez ere elkarren artean trabeara aundiak izaten dituztelarik.

Yoan den igandeko yoko ortan buruz buru ari izanak dira, Arria gaztea (lenagoko Arria zaharraren semea) eta Berekoetxea gorritarra, bakotzak ogeina onbor kana-erdi-ko moztu beharrak zituztela biek batean asi ta zeñek lasterrago ebaki. Egurrak izigarri gogorrak gertatu omen ziren eta oiek guziak Arria gazteak autatutakoak. Asmenta asmentatik gorritarrak aintzinaldia artu zuen, gisa ortan

ogei onborrak porrokatu artio eta apostua aisa irabazirik lan guzia 78.14 minutoz eginik. Arria lenbiko egurretik asi ta gibel asko gelditu zen eta azkenean gorritarra bere lana akitu zuenean, gazteak oraindikan bi egur bazituen moztu beharrak eta bi oiek ukitu gabe lana utzi zuen apostua galdurik. Berriz ere Berekoetxea'k bere ahalmenak erakutsi ditu arri.

garria agertu ba'izen, arentzat etzagon atsedean ta deskantsurik yo ta yo bururik goratu gabe asmentatik akitu artio, zerbaitengatik da bai aizkolarien Txapelkun. Arria 21 urteko muti'koa da, azkarra ta indartsua bai bainan behar bada gazteko apostu aundietan aritzeko, urte pare baten buruan lanak emango ditu bai. Zorionak irabaztaleari eta bai ere galtzaleari.

Aizkolarien txapelketa

Datorren Maiatzean jokatu omen da Donostian Aizkolarien Txapelketa. Beñere ez bezalako sariak banatuko zaizkie. Txapelburuari, ogei milla duruko saria. Bigarrenari, amabost milla duruko. Irugarrenari, amabi milla duruko. Laugarrenari, amar milla duruko, Bostgarrenari, sei milla duruko, eta seigarrenari, lau milla duruko.

Ez asko, Jaungoikoari eskerrak, baño banaka batzuk bai, arkitzen dire euskaldun errietan, diotenak:

—Erljioa, ¡zetako! Gizon langillak eta esku garbikoak bear dee mundu ontan, lagun urkoai kalte egiten ezdiotenak. ¡Beti elizen deenak, ez dee obeenak...! Ola esaten zion Mielantonek, bein baño geiagotan, bere amazteari.

¿Arrokeriz? ¿Ergelkeriz? Emakume gaizoari errabiazteagatik?

Nik uste dot, Mielantonek ziona, bere gizontasuna erakusteagatik, edo zerbait esateagatik, ziola...

Bestela, ¿zerengatik joaten zen igandero, txintxo txintxo, meza ta bezperetara? ¿Zerengatik bera zen lenbizi, bazkal aurreko errezuetarako, txapela kentzen zuena?

Bein baño geiagotan izan giñun Mielanton eta biek sesio on bat, eta ez motxa, atzalgai auetaz. Ze ote zion eta ze aditu zun gizagajo arrek, bela ikusiko dute nere irakurle maitoek idaz lantxo ontan.

—Mielanton, ¿beñepin siñistatuko dezu Jaungoikoa dela eta gure anima betikoa dela...?

—Nik ez det olakorik beñere ukatu. Nik bakarrik esaten det badaela mundu ontan gizon eta emakume asko, beti elizen, katuk su ondoan bezala, deenak, eta gero alper aundik edo biotz gogorra dutenak...

—¿Denak?

—Denak, denak..., ez; banaka batzuk, bai.

—Ta, elizera joaten ez diradenak, ¿onak direla denak uste dezu?

—Ezta, ere.

—Mielanton: obe litzake erlijio donea degun guziok oherenak izango bagifne. Ori ola gertatzen ez bada, esan nai du gizonak eta pekariak gerala. ¿Pensatu dezu noizpait nolakoak izango giñen erlijiorik ez bagifnu?

—Gutxi gora bera, berdintsuk.

—Etzazu olakoik esan. Jaungoikoan bildurtasunik ezduna, ezin da ona izan. Eginbear —obligazio— nagusiena betetzen ez duenak, ez ditu beste eginbearrak ere beteko.

—¿Erljioa bearrezkoa da, orduan?

—Bai, bearrezkoa da.

—Arrazoiak nai nituke.

—Ara, emen, arrazoiak. Jaungoikoa gauza guzien egillea bada ta zeran eta dezun guztia Jaungoikoari zor badiogu, ¿ez da arrazoietako Bera maitatzea, Berari eskerrak ematea, Bera adoratzeta?

—Ori arrazoietako dirudi.

—Goazen aurrera. Zu txiki ziñenian eta zerbait al ez eta nai ziñenian, ¿ze egiten zenduan?

—Aitte ta amari eskatu.

—Ta ¿gaiztakeri on bat egiten baziñun?

—Barkazioa eskatu.

—Ori da, bada, arrazoiak agintzen diguna Jaungoikoaz. Berak egiñak gerallako, Berakin eginbearrak betetzea: geren baitan, geren familiarian eta, bear bada, mundu guzien aurrean.

—Orduan ¿ongi egiten dute erre-zu asko eginda, mundu guziari izorratzen diotenak?

—Egon piskobaten, Mielanton. Jaungoikoak, jakintasan aundiakin egin bazituen gauza guziak, jarri zizkigun beste eginbearrak ere: geren buruakin egin bear ditugunak eta lagun urkoakin egin bear ditugunak. Ez da, bada, naikoa Jaungoikoaz eginbearrak betetzea, bear da ere maite izatea geren burua: geren anima eta geren gorputza, eta baita ere maitatu bear degu gure lagun urkoa, batez ere familiaria eta erri-tarra bada. Eginbear oik, denak, betetzen ditunak, izango da gizon edo emakume oherena. Oiek, denak, betetzen ezbaditu, ez dauke erlijioan itxure besterik, naiz egunero ogei errosario erre-zatu...

—Nere emazteak aditu bear luke sermon au.

—¿Ain txarra da zure emaztea?

—Ez, ez...; ezin naiteke kejavu. Piskebat aspergarri bere errozoakin. Bakarrik...

—Esan egiozu, bada, zure emazteari, erre-zoak ere bear dutela bere neurria, batez ere gizonak daudenian. Tabernan, neurri luzaxogoa izaten dute, baño elizan...

—Azkeneko ori, neretzat gorde bearko det...

—Premin bazaude, gorde nere esan au, eta kontun iduki beti baldin elizkoi on bat ikusten bada al-perra dela edo biotz gogorrekoa, ez dela erlijion eruz. Jainkoan bildurtasuna duna, geienin biñepin, erlijioik ezduna baño obegoa izango da.

—Ori, egi da.

—Gorde dezagun, bada, Mielanton, gure erlijio donea. Au da euskaldunen aberastasun aundiena. Mundu guzian ongi ikusiak eta estimatuak bagara, gure zintzotasun eta erlijio santuari zor diogu.

A. ASTIZ ARREGI

ERRIZ-ERRI



IRUÑA

Argentina-ko plaza da Iruñeko Autobusen (Villavesa) gelditokia, hiri eta auzo inguru zabaletan gandi kurrikan dabilta beribilek gelditu gabe, erematen eta ekartzten yendea bere lanetarat eta sal-erosketak egitera botiketean.

Orrengatik mundu bat biltzen da egunoro gelditoki artan, bereziki ordu berexi batzuetan nola eguerdi eta illunabarretan. Penagarri zen ikustea neguko aro txar egunetan, bustitzen, ozten eta abar; aldiz udaminean eguzki bortitz baten pean kizkaltzen gaixo jendea xutik eta geldik plazerdian, esperun bakoitzak bere autobusetan sartzeko.

Obeki antolatzeak gauzak eta aterbe pixkat emaitako autobusen zai dagozinari, eraiki dute berriki plaza ortan, burdinezko lau estalpe izugarriko itsusiek, ez diteke asma eta egin gauza edo tresna moldegaitzagorikan, uste dugu ondo pentsatu ta aldatuko dutela itsuskeri hori, ta behar bezela antolatu beste aterbe ariñ eta pollitegoak.

Legeak manazten duen bezela, Ayuntamentu berritzearen karietan izandu ziren berriki auteskundeak baitere zalapartak, emengo egunkariet mintzatu dire asko gai huntaz. Botazioak gaizki eginak zirelako, Audientzia-ko lege-gizon jakintsunek, erabaki zuten berriro egitea bozkatzeko hiri, bigarren txanda «Tercio sindical» delako kontzejal-gaien artean, erdiesteako nortzuk izango ziren autatuak kargu orrentzat.

Orain arte eta idazten ari naizen bitartean, ez dugu entzun eta jakin xehetasunik, noiz bilduko ote diren ordezkeriak (compromisarioak) bere botua emateko izendatzeko kontzejal berriek. Laister jakinen dugu zer bait orren berri.

Etzaitzue arrigarri iduritzen, nola asko eta asko yaunek, herriko etxearen alki utsetan yartzeko nahiean, ¿Zer lanak darabilaten esku tardean erdiesteako beren ametsak? Zer baitentegatik izein da.



BAZTAN

ARRAIOTZ

BANETIK ZERBAIT

Inautiak: Urteoro bezela aurten ere ospatu ditugu «inautiak». Bortz egun izan ginituen, gaztedia edeki yostazu zen, soñulariak ere sa-soñi ederra zeukan «cordona» yotzeko, eta ondarreko egunetan, urteoro bezela, ein zuten gure mutillak «zikiro-yate» ederra, arekin batean «nafar beltza» eta a zer sa-soña, denak ikusten ginituen edeki «pinpirrinduek».

Emen bezela «inautiak» ospatu dituzte Irurita'n, Ziga'n, Oronoz'en Lekarotz'en, Amayur'en eta abar. Azkenik egizneke aipatu gabe utzi bear gure Elizondo'ko «inautiak». An bai bazegola zer ikusi eta non irriz ase.

Ango karrozak eta ango yende traste beziak. Yendeak ordu batzuk pasatu zitun goxotasun ederrean. Pasatu direnak pasatu eta urrengoei esperoan.

DENBORA EDERRAK

Ilbeltzian erditutik asi eta Otsailaren erdiraño beñipein denbora ederrak ein dira, goiz eta atsetan otz xamar egiten zuten. Olako denbora ederrakin yendeak lanak la sai egin ditu: asi belai, ogi landa ongarritzen, baita ere iratze alde ederrak bildu. Emengo baserri aintziñean ikusten ditugu sei zazpiki iratze metak. Urte guziko egurre biltzeko ere bai egun onak izan dire. Beiaendako, edo mando edo idiedakako giro idor xamarra egon da.

Artzainak ere kontent xamar daude olako eguraldiarekin. Ni naiz artaño baño iduritzen zait ardiendako obe dela ikusi iruzkie ezen ez elurre ola sikere belayatik atera eta ortxen larrean aritzen dire ote eta añar punte yaten. Elurrekin berriz arditegian eta an berriz bear

dituzte lizera, soroa edo pulpe pixka bat iriyekin, zergatik ardi-tegian ezdago ez ote ezta añar puntik ere; an dagona xoko xokoan kertzolean sartuak bildotzak gauba, eta gauba. Ala bada artzainak Pzokotakokin bildotz ederrak, xilindron edo errean yateko.

ERIOITZA

Gure artetik eriotzak eraman digu betiko Arriuria Martin gizon jatorra, larogei eta bi urtekin. «Go'an Bego». Bere sendi, anaiei laeuntzen diozkagu naigabean.

DONEZTEBE

Asko dira Napparroan errebitxa edo periodiku au artzen dutenak eta oso pozik artzen dutela, bañan, badira beste asko artzen ez dutenak; eta ez artu bakarrik, ez dute ezagutzen-ere. Zabarkeri puska bat bada gure errietan ta lan poliki geiago egin bearra dago. Gure apaiz jaunek ere geixego saiatu bear luteke, arreta geixego artuz, Diputazioak, ta onen izenean Ordezkeriak eskatzen duten bezela.

Ez da txan(-)tetako gauza gure Fuerodun Diputazioak esku-tartean daraman eginkizuna: euskera goratzea ta zabaltzea. Gure Agintarien aldetik orrelako erreztasunak ditugun ezker, gu lo egon? Gure Erri maitea ez degu soratu ta salbatu bear? Bai erantzun, ta deus ere ez egin? Ori gezurtia izatea da.

Sei milla arpidedun badira Napparroan (badakizue «debaldekoa» dela, ordaindu bearrik ez dago) eta beste sei milla bear dirala esatea, gutxi esatea da. Napparroan badira Jaunari eskerrak, irugei millatik sora euskera mintzatzten dutenak, eta oietatik orren gutxi ematea beren izenak ta apelliduak, gauza lotsagarria da. ¡Lan egin bear da!

BASERRITARRAK

Gure baserritarrak «zorian» daude. Zer dela-ta? Napparroko Diputazioak akordua artuta dauka sei urteen barrenean bide berriak ta zabalketak epiteko baserri guzietara. Baserriak urritienetara ere egiño dira pista oiek. Modu ontan, gure baserriak salbatuak daude. Eta gañera, nekazariek orre la arreta aundiagoak artuko ditu nekazalgoan.

Milla ta zazpireun baserri (bizi leku) dauzka napparroak gaurko egunean, ta, baserri-atariraño karrereira izate orrek, ontasun ta gauz aundiak uste izaten al dituzte. Ez bildurrik izan, modu orretan arkituz baserria ta erreztasun oiek emanez, baserria utzi-ta karrikarako joera artuko dutenik...

MENDI MUTILLAK

Malda-errekta ta Baztan aldeko mutillak, asi dira sailtxoka sailtxoka Frantzi, Suiza ta Itali aldeko bidetarik artzen Otsalla'ko egualdi onak animaturik, or dijojez, beren zortzi edo bederatziti illabeteke «ekiñaldia» itsu-itsuan egitera. Dударik ez dago pena aundia ematen diela gure gazte jator auri guratsoak, senideak, sort-erria ta lagunak emen uzteak, bañan, ongi dakite, emen, gastatu bai ta irabazi gutxi egiten dela. Oianeko bizimodua, bizimodu gogorra, bañan, diru egitekoa. Emengoa, ordea, leuntxagoa, bañan gazta-erraxa...

Izan dezazuela osasun ta Jaunak lagundu deizuela laneko arrixku guzietan.

GORTARI UGARTE

BEINZA-LABAYEN

Eguberri egunetan ikasle, mendimutil eta neska geienak agertu dira beuen etxetan.

Egun oietan kantu asko Elizan aditu dira, ederki yo ta abestuak. Ona emen Eguberriko kantu bat:

Goazen artzaiek,
Goazen estalpetxora...
Ain ederra da aurra,
ain zoragarria.
Ain polita, farkoia
dena da «alegría»,
zein ko'ore gorriak,
te zein azal fiña,
zein aurpegi txukuna,
ai zer atseña!

1966 urtean erri ontan amar il dira. Ezkondu bederatziti. Beste bi ezkonduko dira agudo, Auniz urtez!

Eguberri biaramonean ahari yoko edo apustua Labaingo plazan. Ahari bat Saldisko Perikoarena, besten berriz Arraitzeneko Manoloarena, Periko'ren aharia ederra, gizona, ta bizkorra zan, beste apustuetan yokatu eta irabazia. Bakarrik oraingoan jarri da lotsati xamar ta pixkoat beldurti. Dotriñ asko aditua, ta buruan ongi sartua du Yainkoaren bostgarren mandamentua. Lenago egindako mutur-yokaz oni damutua omen dago eta «ino'z geiago bekaturk ez egiteko asmoa artua; ez itzez, ez egitez, ez na'keriz, inori gaitz egiten, edo naigabe, edo miña ematea». orren-gatik ez omen zen aritu yokaka... Gañera egun o'etan kantu asko aditu zituen etxean ta beste tokietan:

«Aingeru abestiak» —Gloria zerruetan, pakea lurretan...

Komeni za'gu anaitasuna,
lan egin ta jatea,
gure artean izan dedilla
zoriona ta pakea.

Eguberriko egun paketsuetan, nola ari aserretan?

Errege egunean ta bezperan, ikusten ziren mutikoak paria añako yolekin, gerritan lotuta, pulun-pulun yoka karrizak-karrizka, euri, loi ta elurreri beldurrik gabe.



LESAKA

Erririk geienetan ezturiek izaten dituzte beren bil eta solas tokiak. Eguneroko ostatu bat edo bi, illunabar aldera, lan onduan lotara biño lehen, mus partida zombait yokatu bidenabar, erri ta munduari behar bada, yorra pasada bat emateko.

Lesakak ere baditu bere xokoak; eketako bat: Antonio'n ostatuta. Unaxe etorri gera berri zombait ikasi naihean, eta ez dira batere izutu, papera eta luma eskuetan ikusi banaute ere.

Bai jauna; Lesakako mendiak basurde tokiak dira; eta badira ez turi franko sinesten ez dutenak. Uste bai dute Aunimendiko mendi-basoetara yon behar dala, nahi ta nahiez, basurdea arrapatzeko.

Ara gabe yostatzen gera emen ederki. Bestaldera berriz, ez degu emen Lesakan ez betarik ez dirurik aski, Guipuzkoar eta Bilbotar zombait bezala, Jaka aldera yotzeko.


Ez dakite askok Artikutzako dermiua aundia dela; inuru guzian ertsia, pagodi eta piñudiz yosia, larrak eta txarak lekuka artua. Basurde leku aut, inon baldin bada, Erran dezakegu, gaur egunian irueun basurde gutxi sora bera, aundi ta txiki, badirela Artikutzan; eun aundi ta berreun txiki.

Yakiña; ez diteke inor zerraduraren barrendik sartu zizpa eskuetan. Debekatua dago. Eta gailoz ez turia eizian ikusi eta arrapatzen badute; beste batean sartzeko gogoak aizatuko dazkiote; Artikutzako oyan-zainak ez baitaude lo.

Gos'a bidelagun txarra da: Artikutzan ere gosiak beriak egiten. Basurdeak tokiz-aldarazten ditu. Orduan inguruko mendietara yotzen dute bazka billa. Eta guk ori nahi; emen gure pesta.

Ez bakarrik inguruetako mendietara, baitare Frantzi aldera. Usoak udazkenean bezala, basurdeak ere badute beren «pasa». Artikutzatik Frantzira, ta Frantziatik Artikutzara. Emen bazka eskasten danean, Frantzira yotzen dute; Frantziangose direnean Artikutzara.

Aurten yostatu gera polliki; amaika ill ditugu. Amaika orientan baziren denetatik: aundiak eta txikiak. 25 kilokoak eta 70'rrekoak. Amar amabi ez turi izaten gera talde bakoitzean; aldi zombaitz bi ta iru talde bildu gera.



NAPARROKO BERRIAK

Diputazioaren azken batzarreran, Industri berrien ereintza ona izan dela ikusi zen. Giro polita sumatzen da. Diru kontuan eskas gailtza, bai bideberri eta bai nekazaritzako beharrak nahi bezala betetzeko.

Eskola gauzetan lan onak egin dira: Tudela'ko Ikastetxea esate baterako. Laister erabakiko da Iruñeko Ikastetxe berri baten gorabera. Langile gaiak erabiliko dira, mail erdiko injenieroen eskolak sartuko dituzte (Ingenieros de Grado Medio).

Gure Diputazioak ere bere gizonen berritzea darama esku

tartean. Ordekari, Diputado zombait, eta Laguntzaileak (Consejo Foral) aukeratu beharrak dira egun auetan. Bide onez ereman ditzatela beren karguko eginkizunak. Napparroa begira daukate.

Esan ginezake beste jokabide bat dugula asten. Erritan Ayundamendu asko aldatu dira eta bai alkateak ere. Oraiko egin kizuna zailla izango da eta ondore aundiak ekar dezazkena. Denok elkar lagunduz aurrera atera bear ginuke Napparroa. Aurreratu dezagula egune tik egunera gizonaren bizimoduko larrabide guzitan.

GOIZUETA

Euskal teatroa

Ilbeltzaren 22'an, Bergarako Euskal teatro-saila etorri zitzaigun. «Ito edo ezkondu» antzerki ederra egin zituzten eta antzerki egileak amaika txalo eder entzun zituzten. Bejondaiela Bergaratar jatorrei eta bide ortatik aurrera jarrai dezatela.

Garizuma aurreko jaiak:

Euskalerriko beste toki askotan bezala, Auster aurreko bi egunetan, Goizuetako gaztediak ere jai egiten du. Astelenean, baserri-baserri «jaki» biltzen ibiltzen dira mutillak. Asteartean berriz, etxe-etxe err'an. Egun ortan, aspaldi-aspaldiko, «zagi dantza» deritzaien dantza zar bat dantzatu oi dute. Beltz-beltz eginda, aizatutako zagia bizkarrean daramakin mutill jarri oi da, dantzari sailaren erdian. Amaika makilkazo artzen dituzte zagi garazajoak eta bakarren-bat mutillaren buru gañera joatea ere, gerta litekena eta gertatu oi dana da. Onekin bukatzen dira penitentzi-gara aurreko jaiak. Zer adierazi nai ote du, zagia bizkarrean daramakin mutill beltz orrek? Inpernuko etsaiaren irudia ote? Garizumako penitentzi-arekin makilkatua geldituko dan inpernuko etsaiaren antza ote du?

Ayuntamiento berritzea

Erriko agintarien erdiak orain-txe berritu zaizkigu. Bizitzari dagokiona da berritzea. Gure agurra ateratzen diranei ta ongi etorria sartu diranei. Asmo berriak eta lan egiteko gogoia agertuko digutela uste dugu, ala espero dugu. Gogo eta asmo onez beterik daudenean, erri baten onerako lan asko egin dezaket kontzejal. Erriarren onari bakar bakarrik begira-tuz sartu dirala uste dugulakotz, on aundia egin bear dutela ziur gaude.



SALDIAS

Mix'ok edo Ejerziz'ok

Ilbeltzaren 29'tik Otsailaren 5'ra Arantzatzu'ko Aita Etxeberria etorri za'gu animako gauzetaz itz egitera.

Saldis'ko Langilleak Letze'n

Leitze'ko lanbide ori askorentzat oso egoki etorri da. Ezdago esan bearrik amaika familietara ekarri duela arintasun franko. Asko ziran gure errietan irabazbiderik gabe gelditzera zijoazenak. Etxean dementzat lanik ez, edo etxeko lan orrek bererik ez; mendira joateko ia ez on; nun zegoen olakoentzat lantoki egoki bat? Oientzat denentzat Leitze'ko «Paper Ola» izan da salbazioa. Saldis'ko eta Labain'go baserrietatik amaei lagun joaten dira Leitze'ko «Paper Ola»-ra. Oien bidez etortzen dira gure errira illa. beteoro amar bat milla duro. Diru onko asko mesedetzen dituzte gure erriko fam'lii oiek. Orrela beste giro baten jabe egin dira gauzetan.

«Koskonta»



SEMINARIOA: Barrean eta kanpoan

Ilbeltzako aldapa gorari ekin diogu. Orain bai, egiaz, «olentzero jua zaigu, mendira lanera», datorren eguberriak arte...

Gaude dezaiozun ordea «olentzero» zaldar xamar baño berrikerari zuzen orreri: Zer eskatzen diguzu, zer konsigna agintzen urte berriko?...

Bakazio ondorean zabaldu gera, bakoitza bere lanera, aitzur, mallu, edo liburuz eman zaigun urte berria zartzera.

Emen, seminarioan, liburuz jokatu bearra daukagu. Ikastea da gure egitekorik larriena. Bañan ikasketa au, prestatze au ezin dezakegu liburuz bakarrik osatu. Aspaldiko esaera da «ikusiz ikasi» ta ez egi makala.

Orain gañera, beñiere baño geiago bear bat sumatzen degu. Gizona ezagutu bearra, gizonaren indarrak, gizonaren askatasun ta berdintasun nai ikaragarria, zorion egarria, ta beste olako amaika problema estudiatu bearra sumatzen degu. Eta gaur batez ere, ezin eman dezakegu nolanaiko atererak problema auentzat. Atererak, soluzio egiazkoak bear dituzte: problema ori badela gogoan egukiaz ateratako soluzioak.

Au dena ordea, esan det lenago ere, liburuetan ezin ikasi. Oartu bear degu gizonaren izaneran bakoitzaren alderdiak eta garaiaik erruz, aunitz esan nai dutela. Ez dira alderdi guztietako gizonak berdiñak. Ezta garai guztietakoak ere. Orregatik beren lekuan bertan estudiatu bear ditugu. Fabrika bateko obreroak nolakoak diran, nola pentsatzen duten, zer dan aien buruausterik gogorrena, aien gogorik biziana jakin nai dituenak aien bizimodu bera egin, itz egin, jostatu ta adixkidetzea ditu biderik obenak.

Gure errian aldaketa aundi bat egiten ari da. Gaurko gazteak ez dira orain dela ogei urte bezelakoak. Makurregoak gauz batzutan, bizkor eta sendoagoak beste batzutan; makurrego menpean egoteko, baño sendoago beren askatasuna zaintzeko. Bizimodu bera asko aldatu da egunero aditzen degun bezela. Fabrika bateko obreroak eta nekazari batek ez dituzte buruauste berak; ezta gaurko ta orain ogei urteko baserritarrak ere. Aldaketa auek problema berriak sortu dituzte, ta aterera berrien eske daude.

Badire beste alde batetik saritetsi edo balore batzuek aldatu gabe, beti berdin diranak; gizon beraren edo alderdiaren —emen erri— izaneratik sortzen direlako. Oieri eutsi!

Bañan oiek ez dire aski; gure erriko kanta zarreri eustegatik, ez degu berriak kantatu gabe gelditu bear. Ta ez bakarrik kanta berriak kantatu baizik baita ere egin, sortu ta moldatu gure erriarentzat moduko.

Ta kantakin esandakoa, dantzakin, oiturekin, erritasunekin eta izkuntza berakin!

Urte berriak eskari au egiten digu: Gizona ezagutzeko, estu-diatzeko bere alderdi ta garaian. Beti berdiña duanarekin eta aldadzen zaionarekin. Gure errian eta gaurko egunean. Seminario barenndik eta kanpotik. Bestela ez degu ezer egingo, gazterik zartu baizik!...

P. ZABALETA



Aitaxi xaharra eri da. Lengo gauzak! Hiltzen den eguneko bazkaria prestatzen asiak dira etxean. Ardo obereetik ekarri dute.

—Auxe duk ardo ona! —esan du gaixo zegonak—. Nik alako ardoa egunero banu, sendatu egingo nitukek.

—Sendatu esan duzu? Ori behar ginuke orai! Gastu guzia egin ondoan zu ez hiltzea!

Mañes haurrari bost durokoa eman diote. Adik pixka batera negarrez asi da.

—Zengatik egiten duk negar? —Diru au amari ematen badiot, aitak jo egingo nau!

—Eman aitari!...

—Orduan amak zanpatuko nau... —Gorde zak urretako eta kitto!

—Bai; ta gero biek jo!

MUTIL SOLAS

Suerte aundia egin duk etxe ortan sartzean. Nola moldatu aiz? Aurretik ezagutzen al-yuen nagusia?

—Ez. Nagusiak ninduen ez ezagutzen ni.

OSTATUAN:

—Begira zer euli beltza atera daiten zopen!

—Prezio ortan pentsatzen al zinen etzirela angulak aterako... —

ESKOLAN:

—Migelito! Zer egiten du zure aitak?

—Amak esana.

MUTIL GAZTE BATI, BERE AITAK:

—Behar zinuek orai emakume bat etxera ekarri. Areakin buru-auste guziak aisago eremango dituzu.

—Ez dut nik buru-auste aundirik.

—Berdin balio du; arekin izango dituzu.

ELIZAN:

—Zer izen ezarriko diogu aur-rari?

—Znprovif.

Arritu da apeza:

—Ez arritu jauna. Nere senarrez ez aztutzeko da.

—Rusia aldekoa al zen?

—Ez. Begi sendatzailea.

OSO POLITA:

Aurren txokoan etortzen diren zirikada oiekien aitak iru aldiz irri-par egiten du:

—Nola da ori?

—Istoria aditzean, bat. Berak kontatzean, beriz. Eta zer esan nahi duen konturatzen denean, aundiena.

SUNBILLA

Iñautiak

Urte ontan Iñautik Otsaillako iruin asi dire (orzila) eta bosgarren egunean (igandean) akitu dira.

Mutillak etxez-etxe ibilli ziran, batzuek pañulukin, eta bertzeak altaxaferruak eskuetan eskatzen gauzak, eta kordionakin.

Bi lenbiziko egunean ez nintzan joan karrikara.

Igandean eman zuten tortilla. Nik ez nuen jan zergatik bi bataio baitziran eta artara joan nintzan. Etxera joan, yan nun, eta bezperatarara joan nintzan.

Bezperatik atera eta joan nintzan plazara an bertze neskaekin yostetan aritu nintzen, erosi nuen zerbait eta ala pasatu nuen atsaldia. Gero joan izaban etxera.

Mercedes Gago, 12 urte

"Turismo, Liburutegi eta Erri-Yakintzako" Zuzendaritzaren lan aipagarriak

Orain bi urte t'erdi baditu gure Diputazioak «Turismo, Liburutegi eta Erri-Yakintzaren» aldeko lan egiteko Zuzendaritza bat sortuerazi zuela, Jaime del Burgo jauna Burua izateko izendaturik.

Ordudanik gure erritako yakiteri buruzko lanetan Turismo aldeko arazoetan eta erri askotan Liburutegiak jartzeko eginkizunetan murgildua dago del Burgo zuzendari-erri, lanzale eta aspergabeko langillea.

Beste lan aunitzen artean, gure ustez, nabarmenetako bat Turismo-ri doazkion egiten ari diren lanak dira, eta gaur zerbait goiko fotoan ikusten diren sei liburuak berriei buruz esango dugu, Zuzendaritzaren onen ardurapean argitara eman berriak direlako.

Zuzendaritzaren asmoak mundu guzian Naparro'ko Alderdi, Ibar, eta Errialde guzian berri, argibide, xetasun eta ikusgarriak zabaldu eta ezagun erazte dira. Onengatik, irakurleak ikusiko duten bezala, Zuzendaritza au Napar Alderdi bakoitzari dagokion liburutxo bat argitaratzeko lanetan dago, eta ona emen lenengo sei liburuak, gaiez Erriberri (Olite), Lizarra (Estella), Erronkari'ko Ibarra, Saraitzu'ko Ibarra, Zangotze-Leyre-Xabier, eta Tudela dutenak.

Liburutxo bakoitzak errialde baten xeede eta berri guziak ekartzen ditu eta modu ontan Naparro guzia, bere mendi, iri, erri, ibar, ibai, txoko, baztar, gaztelu, eliza, jauregi, eiz nagusi, dorre, etxe eta guzi munduari ezagun eta yakin eraziko dizkiotegu liburutxo auetaz.

Esate baterako eta ejemplo bezala Lizarra'ri buruzko folletoak agertzen eta ekartzen dituenak ona emen laburrez esanak:

Lenbizikoz, Lizarra'tik Euskal Erri'ko Uriburu guzietarañoko kilometroak, baita Logroño, Zaragoza eta Madril'erañokoak ere.

Segidan Lizarra'ko istori txiki bat eta ondorean bere Etxe Bikain, Jauregi, Eliza, Komentu eta Toki Zarrak.

Etxe Bikain eta Jauregien artean emen aipatuko ditugu: Naparro'ko Erregeen Jauregia, Aiuntamenduko Etxe Zaarra, Agintarien Etxea, Lizarra'ko Aita Diego Prailearen Etxea, Sainduen Etxea eta Karlos Zazpigarrenekoa.

Elizen artean: Erruako Pedro Sainduarena, Errokamadorko Ama Birgiñarena, Arrilobi Sainduarena, Gazteluko Yus Maria Sainduarena, Lizarra'ko Pedro Sainduarena, Yondone Batistarena, Mikel Aingeru Sainduarena eta Gure Puyko Andre Denearen Basilika edo Eliz Nagusia-rena.

Komentuen artean: Domingo Sainduaren Prailetzea, eta Errekoleten Mojatagia.

Ondorean Periak eta Bestak izaten diren egunak. Beste ataltxo bat deporte dagozkienak, eta Lizarra'n geien aritzen direnak: Pillota, Eizia, Arrantza, amorraik eta karra-marroak bereziki, fubola, Mendi-tarra Zaletasuna... eta, eta.

Folkloreak ere badu bere lekua: Du'zainak gaitak) oitura, kontu, «Larrañeko Dantza» famatua, eta abar.

Bukatzeko Lizarra'tik ateratzen diren bide zabalak, jateko eta edateko bereziak, ostatu eta hotelen izenak eta Lizarra ta bere errialdeko mapa bat.

Sei liburuak aien esanak Del Burgo Jaunak idatziak daude. Maketak CYDE delakoak egin ditu. Fotoak: Ardanaz, Galle eta Rafael egindakoak, eta «Iparreko Lito-grafia» Iruñe'ko Moldiztegi ezagun-ean argitaratuak dira. Ordain gabe, utsean truk, jaso ditezke. Nai duenak eskatu beza Naparro'ko Diputazioaren «Dirección de Turismo, Biblioteca y Cultura Popular» erderaz deituari.



Ondarrean ar bitza gure txalorik beroenak Jaime del Burgo Buruak, bere lan guzientatik, eta esperoan

gude argitaratzekotan dauden beste liburutxoei.

IKUSLE



NEKAZARITZA ETA ABEREA

Laurrerako ongarrriak

Euskerazko aldzkari ontan bearezko dala iruditu zaie bertako zuzendarieri, nekazalgoentzat zuzendutako zerbait azaltzea. Izan ere Naparroko euskaldun geienak baserrian eta baserritik bizi diranak baidira.

Era askotako gaiak erabiliko ditugu saill ontan, bañan guztiak baserritarreri dagokienak, eta nekazalgoak dauzkan illuneak argitu nairik.

Oraingoz as'era emango diogu lurra nola ongarritu bear diran zerbait azalduaz.

Sarritan entuzten degu nekazal-geen artean, gorotza edo ximaurra bezelako ongarririk ezdagoala lurrentzako, eta beste gañontzeko mineral edo abonoak, lurra agortu eta ondatu egiten dituztela.

Dudarik ezdago ximaurra ona bakarrik ez, bizik bearezko dala lurrarentzat era obean jartzen dualako, eta lurrean bizi diran on egiten duten xomorro asko ugartzen ditualako. Begiz ikusten ezdiran xomorro auek dira lan darearentzat janaria prestatzen dutenak, beren zuztarren bitartez bertatik janaz, guk etxeko andreak prestatutako janariak jaten ditugun bezela.

Bañan landareak ondo aziko bada lau janari klase bear ditu, eta auek dira: **Nitrogenoa** (Nitrato de Chile edo Amoniako) izenez eza gutzen ditugunak; **Fosforikoa** (mineral zuria edo mineral) beltza esanez ezagutzen deguna; **Potasa** eta **Karea**.

Auek dira bada lau janari klase, landareak bear dituanak ondo azi-ko bada eta ximaurrak bakarrik

ezdio ematen lurrari bear aibes-te izendutako janari auetatik; geiago oraindik naiko janari eman ezik lau janari auetatik bat, **Karea** kendu egiten dio lurrari, zenbat eta ximaur geiago erabiltzen dan orduan eta azkarrago.

Gure lurretan ezlegu oiturarik lau janari klase auetatik erabiltzeko eta geienetan bakarra erabiltzen degu, au da (mineral zuria) edo fosforikoa daukana, eta urte askotan au bakarrik erabiltzen, sarritan gure lurra agortu egin zaigu landareri azi nai ezta geldituaz.

Onekin uste izan degu mineral edo ongarririk auek erabiltzea kaltegarri dala lurrarentzat, bañan gertatzen dana au da: mineral-tatik emanaz landarea askoz geiago azi da gure lurretan urte batzuetan, eta guk lurrari eman ezdiogun beste iru janari klaseak, urritu edo agortu erin zaio eta orduan ezin landareri azi.

Esan ditugun lau mineral klase edo ongarririk auetatik zer neurritan eman bear zaion lurrari jakiteko, lendabizi analizatu egin bear da lurra, eta ontarako badiu Diputazioak laboratoriorio edo toki bereziak.

Lurra ongarrizteko garairik egoki-ena negua da belarrez jantzita daudentzat eta azia eregin baño illabete lenago lantzen diran lurrentzat; beragaitik oraindik garai-ian zaude landu bear dituzun lurra bear bezela ongarrizteko.

Ez neke alperrik egin lurra erabiltzen auek bear bezela ongarririk gabe, ezdezu bestela zure ne-kea merezi duan neurrian saritua ikusiko.

Aitzgorri